Banakako kategorian lehenengo hirurei garaikurrak emango zaizkie, eta taldekako kirol motetako azken faseetako lehenengo biei ere bai, hala mutilen nola nesken kategoriakoei.

GAZTEEN KATEGORIAKO LEHIAKETAKO KIROL MOTAK: LABURPEN TAULA

KIROL MOTA	PARTE HARTZAILE KOP. GEHIENEZ	PARTE HARTZAILE KOP. GUTXIENEZ	PARTE HARTZEA BANAKAKOA	PARTE HARTZEA TALDEKAKOA	ERAK. PART. IKASTETXEA	ERAK. PART. KLUBA
XAKEA	6	4	X	X	X	X
SASKIBALOIA	12	8		X	X	X
ESKUBALOIA	15	7		X	X	X
FUTBOL 7	15	10		X	X	X
FUTBOL SALA	12	8		X	X	X
GIM. ERRITMIKOA	6	5	X	X	X	X
GIM. ARTISTIKOA			X		X	X
HERRI KIROLAK	12/6	8/4	X	X	X	X
IRRISTAILU HOCKEYA	10	6		X	X	X
HOCKEY SALA	10	6		X	X	X
HOCKEY HIERBA	15	8		X	X	X
JUDO			X		X	X
KÁRATE			X		X	X
MENDIA			X		X	X
IRRISTAKETA			X		X	X
ESKU PILOTA	3	2	X	X	X	X
TENISA			X		X	X
MAHAI TENISA			X		X	X
VOLEIBOL	10	6		X	X	X

5.- 2001-2002 DENBORALDIAREN HASIERAKO ETA AMAIERAKO EGUNAK

Lehiaketak ezingo dira 2001eko irailaren 30a baino lehen hasi, ez eta 2002ko maiatzaren 18a baino beranduago amaitu. Dena dela, egoera berezietan, Gazteria eta Kirol Sailak egun horiek aldatzeko baimena eman dezake.

6.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEEKIN LANKIDETZA ITUNAK EGITEA.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren eskola kirolari buruzko 160/90 Dekretuaren (ekainaren 5ekoa) 12. artikuluari jarraituz, erakunde laguntzaileekin egingo den lankidetza hitzarmenen bakoitzean jasoko dira xedapen horiek guztiak; hitzarmenok, gutxienez, honako eduki hau eduki beharko dute:

- Elkarri informazioa emateko eta elkarrekiko koordinaziorako hitzarmena.
- Erakunde laguntzaileek laguntza teknikoa ematerakoan beteko dituzten eginkizunak.
- Kasu bakoitzean hitzartuko diren diru ordainak.

7.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Erakunde interesatuek Arabako Eskola Kiroleko Jokoetan laguntzeko asmoa adierazi beharko dute inprimaki baten bitartez.

a) Jarduera plan bat, honako hauek zehaztuko dituena:
- Sustatuko diren kirol motak.
- Lehiaketa hasteko eta amaitzeko egunak.
- Zein maila eta kategoriatan lagunduko duten.
- Maila eta kategoria bakoitzerako lehiaketa sistema.

b) Gastuen aurrekontua.
- Administrazio gastuak.
- Materialetako gastuak (baleude).
- Instalazioetako gastuak (baleude).
- Epaile - jokozainen gastuak (baleude).
- Beste gastu batzuk.

c) Datu Orokorrak
- Lehiaketaren arduradunaren izena, bi deitura, helbidea eta harremanetarako telefonoa.

8. - PROIEKTUA AURKEZTEKO EPEA

Aipatutako proiektua 2001eko azaroaren 30a baino lehen (egun horretan ere bai) aurkeztu beharko zaio Arabako Foru Aldundiaren Gazteria eta Kirol Sailari.

GAZTERIA ETA KIROL SAILA

4.652

Eskola Kiroleko Kanpainan izena emateko araudia (2001-2002 denboraldia).

Arabako Eskola Kiroleko Kanpainan parte hartu nahi duten eta horretarako ezarriko diren diru laguntzak jaso nahi dituzten erakun-

Se entregarán trofeos a los tres primeros clasificados en la categoría individual así como a los dos primeros clasificados en las modalidades colectivas de la fase final tanto en la categoría masculina como femenina.

CUADRO RESUMEN DE MODALIDADES DEPORTIVAS DE COMPETICIÓN PARA LA CATEGORÍA JUVENIL

MODALIDAD DEPORTIVA	Nº PARTICIPANTES MÁXIMO	Nº PARTICIPANTES MÍNIMO	PARTICIPACIÓN INDIVIDUAL	PARTICIPACIÓN EQUIPOS	ENTID.PARTICIP. CENTRO	ENTID.PARTICIP. CLUB
AJEDREZ	6	4	X	X	X	X
BALONCESTO	12	8		X	X	X
BALONMANO	15	7		X	X	X
FÚTBOL 7	15	10		X	X	X
FÚTBOL SALA	12	8		X	X	X
GIM. RÍTMICA	6	5	X	X	X	X
GIM. ARTÍSTICA			X		X	X
HERRI KIROLAK	12/6	8/4	X	X	X	X
HOCKEY PATINES	10	6		X	X	X
HOCKEY SALA	10	6		X	X	X
HOCKEY HIERBA	15	8		X	X	X
JUDO			X		X	X
KÁRATE			X		X	X
MONTAÑA			X		X	X
PATINAJE			X		X	X
PELOTA MANO	3	2	X	X	X	X
TENIS			X		X	X
TENIS MESA			X		X	X
VOLEIBOL	10	6		X	X	X

5.- FECHAS DE COMIENZO Y FINALIZACIÓN DE LA TEMPORADA 2000-2001

Las competiciones no podrán empezar antes del 30 de setiembre de 2001, ni finalizar después del 18 de mayo de 2002. No obstante y en circunstancias especiales el Departamento de Juventud y Deporte podrá autorizar la modificación de estas fechas.

6.- CONVENIOS DE COLABORACIÓN CON LAS ENTIDADES COLABORADORAS

Todas estas estipulaciones se recogerán en un convenio de colaboración, con cada una de las entidades colaboradoras al amparo del artículo 12 del Decreto 160/90, de 5 de junio del Departamento de Cultura y Turismo del Gobierno Vasco sobre deporte escolar, en los que se determinará como mínimo lo siguiente:

- El compromiso de información y coordinación mutua.
- Las funciones a desempeñar por las Entidades Colaboradoras en el desarrollo de la asistencia técnica.
- Las contraprestaciones económicas que en su caso se acuerden.

7.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR

La Entidad interesada deberá manifestar su intención de colaborar en el desarrollo de los Juegos Escolares Deportivos de Álava a través del Impreso.

a) Un plan de actividades en el que se indicarán:
- Modalidad deportiva a promocionar
- Fechas de inicio y finalización de la competición
- Niveles y categorías a desarrollar
- Sistema de competición para cada nivel y categoría

b) Presupuesto de Gastos
- Gastos de administración
- Gastos de material (sí lo hubiese)
- Gastos de instalación (si lo hubiese)
- Gastos de Jueces-árbitros (sí lo hubiese)
- Otros gastos

c) Datos Generales
- Nombre, dos apellidos, dirección y teléfono de contacto del responsable del desarrollo de la competición.

8. PLAZO DE PRESENTACIÓN

Dicho proyecto deberá ser presentado, antes del día 30 de noviembre de 2001 (inclusive) ante el Departamento de Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Álava.

DEPARTAMENTO DE JUVENTUD Y DEPORTE

4.652

Normativa que regula la inscripción en la Campaña de Deporte Escolar temporada 2001-2002.

Todas las Entidades que deseen participar en la Campaña de Deporte Escolar de Álava y ser beneficiarias de las subvenciones

de guztiek Arabako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Sailean eman beharko dute izena, ondoren aipatuko diren dokumentuak aurkeztuz:

1.- ERAKUNDEAK IZENA EMATEKO ORRIA.

Arabako Eskola Kiroleko Kanpainan (2001-2002) izena eman nahi duen erakunde orok, horretarako prestatutako orria bete beharko du.

Erakundeak behin bakarrik bidaliko du izena emateko orria, Arabako Foru Aldundiaren Gazteria eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzura. Eskola Kiroleko Kanpainako edozein kirol motatan erakundearen izen-emate gisa balioko du orri horrek.

Orri horrek bakarrik ez du inolako baliorik izango izen-ematea gauzatzeko, gero ez bada jarduera bakoitzerako zenbait agiri aurkezten (parte hartzaileen izen-emate orria, jardueren proiektuak, e.a.).

Inprimaki hori Arabako Foru Aldundiaren Gazteria eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak eskainiko du, eta Erregistro Orokorraren bidez aurkeztu beharko da edo Eskola Kiroleko Kanpainan Izen-emate Bulegoan (Jesusen Zerbitzarien kalea, 5-behea).

2.- TALDEEK IZENA EMATEKO ORRIA.

"Erakundeak izena emateko orria" Gazteria eta Kirol Sailean bete eta izapidetu ondoren, Arabako Eskola Kiroleko Kanpainan parte hartzeko euren taldeen izena eman nahi duten erakundeek bi eratan eman dezakete izena:

- "Taldeak izena emateko orria" erabiliz. (Inprimaki hau Gazteria eta Kirol Sailak eskainiko du).

- "Internet" erabiliz, hau da, parte hartzaileei administrazio izapideak errazteko diseinatu den informatika-aplikaziora sartuz.

2.1. "Taldeak izena emateko orria"-ren bidez. "Taldeak izena emateko orria"-ren bidez izena emateko Erakunde interesdunak dagokion inprimakia bidaliko du Gazteria eta Kirol Sailera, kirol mota bakoitzarentzat ezarritako epean izapideak egin ditzan. Aurreko denboraldian (2000-2001) parte hartu duten ikasleek ez dute familia liburuaren edo nortasun agiriaren fotokopiarik aurkeztu beharrik izango, nahikoa izango baita aurreko urteko baimena aurkeztea. Eskola kiroletan lehen aldiz izena ematen duten ikasleek familia liburuaren edo, hala badagokio, nortasun agiriaren fotokopia aurkeztu behar dute izena ematerakoan, inprimakiarekin batera. Behin 14 urte betez gero, nortasun agiriaren fotokopia aurkeztu behar dute nahitaez.

Era berean, honako hauek ere aurkeztu beharko dira: "Taldeak izena emateko orria" eta taldeko teknikarien titulu egiaztagiriak edo dokumentuak.

2.2. "Internet" bidez: "Erakundeak izena emateko orria" izapidetu ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Gazteria eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak Eskola Kiroleko Kanpainaren identifikazioa eta Web orriaren sarbide-gakoa emango dizkio erakundeari. 2000-2001 denboraldian parte hartu duten ikasleek ez dute inolako agiririk aurkeztu behar izango, nahikoa izango baita Eskolako Baimenaren zenbakia jakitea.

2001-2002 denboraldiko Eskola Kirolean lehendabizikoz izena emango duten ikasleek, "Taldeak izena emateko orria" erabiliz bakarrik eman ahal izango dute eta, horretaz gain, orri horrekin batera Familia Liburuaren fotokopia aurkeztu beharko dute edo, hala badagokio, aipatutako Eskola Kiroleko Kanpainan lehendabizi izena ematen duten kide bakoitzaren Nortasun Agiriaren fotokopia.

3.- ARABAKO ESKOLA KIROLEKO KANPAINAN PARTE HARTZEKO BAIMENAK.

Behin "Taldeak izena emateko orria" izapidetu edo "Internet" erabiliz izena eman ondoren, eta Gazteria eta Kirol Sailak bi izen-emate mota horiek balioztatu ondoren, sail horrek banan-banako baimenak prestatuko ditu nahitaez.

Ikasle, entrenatzaile edo ordezkariek lehiaketan parte hartzeko eskubidea ematen dien urteroko baimena beharko dute. Baimen bana emango da parte-hartzaileak izena eman duen kirol mota bakoitzeko.

que se establezcan al efecto deberán realizar la inscripción ante el Departamento de Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Álava, presentando la documentación que a continuación se detalla:

1. - HOJA DE INSCRIPCIÓN DE LA ENTIDAD

Toda Entidad que desee inscribirse en Campaña de Deporte Escolar de Álava 2001-2002, deberá realizarlo a través de la Hoja de Inscripción de la Entidad preparada al efecto.

Esta Hoja de Inscripción de la Entidad se deberá enviar una sola vez al Servicio de Deportes del Departamento de Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Álava, como inscripción de la Entidad a la Campaña de Deporte Escolar en cualquiera de sus vertientes.

El envío exclusivo de ésta no tendrá ninguna validez para formalizar la inscripción, si posteriormente no va acompañada de los distintos documentos que para cada una de las actividades se solicitan (hoja de inscripción de participantes, proyectos de actividades, etc.).

Este impreso, que será facilitado por el Servicio de Deportes del Departamento de Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Álava, y deberá ser presentado, a través del Registro General o en la Oficina de Inscripción de la Campaña de Deporte Escolar. Calle Siervas de Jesús número 5 bajo).

2. - INSCRIPCIÓN DE EQUIPOS O GRUPOS

Todas las entidades que hayan cumplimentado y tramitado ante el Departamento de Juventud y Deportes la "Hoja de inscripción de la Entidad" y deseen inscribir grupos o equipos en la Campaña de Deporte Escolar de Álava podrán realizarse de dos maneras:

- A través de la "Hoja de inscripción de grupo o equipo". (Este impreso será facilitado por el Departamento de Juventud y Deportes.)

- A través de "Internet", accediendo a la aplicación informática diseñada con la finalidad de facilitar los trámites administrativos a los participantes.

2.1. A través de la "Hoja de inscripción de grupo o equipo". La Entidad interesada en realizar la inscripción a través de la "Hoja de inscripción de grupo o equipo" remitirá el oportuno impreso al Departamento de Juventud y Deporte, para su tramitación y dentro de las fechas marcadas en las normativas de competición elaboradas para cada una de las modalidades deportivas. Para los escolares que han participado en la Temporada 2000-2001 no hará falta remitir fotocopia del Libro de Familia o del Documento Nacional de Identidad. Los escolares inscritos en la campaña 2000-2001, deberán aportar únicamente la licencia del año anterior. Para los escolares que sea la primera inscripción en Deporte Escolar deberán acompañar a la inscripción la fotocopia del Libro de Familia o, en su caso, la del Documento Nacional de Identidad de la totalidad de los componentes inscritos por primera vez en el citado impreso. Una vez cumplidos los 14 años, se deberá presentar obligatoriamente fotocopia de Documento Nacional de Identidad.

Así mismo se deberán acompañar a la "Hoja de inscripción de grupo o equipo" Documentación acreditativa de la Titulación que indique poseer el Cuerpo Técnico del grupo o equipo.

2.2. A través de "Internet" una vez tramitada la "Hoja de inscripción de la Entidad" El Servicio de Deportes del Departamento de Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Álava proporcionará a dicha entidad le identificación y la clave de Acceso a la Pagina Web de la Campaña de Deporte Escolar. Para los escolares que han participado en la Temporada 2000-2001 no hará falta remitir ningún tipo de documentación, solo hará falta el conocimiento del número de Licencia Escolar.

Para los escolares que sea la primera inscripción en Deporte Escolar temporada 2001-2002 solo se podrá realizar la inscripción a través de la "Hoja de inscripción de grupo o equipo" y acompañar a la inscripción la fotocopia del Libro de Familia o, en su caso, la del Documento Nacional de Identidad de la totalidad de los componentes inscritos por primera vez en la citada Campaña de Deporte Escolar.

3. - LICENCIAS PARA PARTICIPAR EN LA CAMPAÑA DE DEPORTE ESCOLAR DE ÁLAVA

Una vez tramitada la "Hoja de inscripción de grupo o equipo" o realizada la inscripción a través Internet, y validadas las inscripciones de cualquiera de las dos formas por el Departamento de Juventud y Deporte, este departamento proceder con carácter obligatorio, a confeccionar la oportuna licencia individualizada.

Los escolares, entrenadores y delegados, poseerán la correspondiente licencia anual, que les acreditará para tomar parte en la Campaña de Deporte Escolar Se expedirá una licencia por cada modalidad deportiva en la que el participante se haya inscrito.

Aitaren, amaren edo tutorearen sinadura azalduko da parte-hartzaile adingabeen baimena izapidetzerakoan. Sinatutako baimen horren bidez, erakundearen, aukeratutako kirolaren eta aseguru polizaren ezaugarriak ezagutu eta onartzen dituela ematen da aditzera. Era berean, sinadura horrekin, kirol jakin bat praktikatzeko behar den osasunaren erantzukizuna hartuko du bere gain aitak, amak edo tutoreak.

4.- EMANDAKO DATUAK EGIAZTATZEA

2001-2002ko Arabako Eskolako Kiroleko Kanpaina dela-eta Gazteria eta Kirol Sailean izapidetutako orriak edo formularioak Eskola Kontseiluko lehendakariak sinatu beharko ditu nahitaez ikastetxeen kasuan, eta gainontzekoetan, eskaria egin duen erakundeko legezko ordezkariak.

5.- AURKEZTEKO EPEA

Erakundeak 2001-2002ko Eskola Kiroleko Kanpainan izena emateko orria aurkeztuko du Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean edo Eskola Kirolean izena emateko bulegoan, 2001eko irailaren 28ra arte (28a barne), teknika eta antolamendu arrazoiak tarteko direla-eta, Gazteria eta Kirol Sailak beste dataren bat jartzea erabakitzen duenean izan ezik.

"Taldeak izena emateko orriak" Aldundiko Erregistro Orokorrean edo Eskola Kirolean izena emateko bulegoan aurkeztuko dira kirol mota bakoitzarentzat prestatutako lehiaketa arauetan ezarritako egunetan, behar bezala izapidetu ditzaten, teknika eta antolamendu arrazoiak tarteko, Gazteria eta Kirol Sailak beste dataren bat jartzea erabakitzen duen kasuetan izan ezik.

6.- KIROLARIEN IZENA EMATEA

Kirol mota bakoitzaren lehiaketa arauetan zehaztuko dira kirolariek izena emateko izango dituzten egunak eta bete beharreko baldintzak.

INFORMAZIO OHARRAK

Eskola Kiroleko Web orriaren bidez izen-emateen izapideak egiteko eta eskainiko diren argibideetarako erabiltzaileen gida emango da aipatutako orri horretan zehar nabigatzeko.

En la licencia tramitada para todo participante menor de edad, deberá aparecer la firma del padre, de la madre, del tutor o tutora, por la que reconoce y acepta las características de la entidad y actividad en la que está inscrito, el sistema de cobertura de seguros. Así mismo, con su firma, el padre, de la madre, del tutor o tutora se responsabiliza del adecuado estado de salud del participante para la práctica deportiva específica.

4. - VALIDACIÓN DE LOS DATOS APORTADOS

Todas las hojas y/o formularios tramitados ante el Departamento de Juventud y Deporte y relativos a la Campaña de Deporte Escolar de Álava, 2001/2002, deberán estar firmados obligatoriamente, en el caso de los Centros Educativos por el Presidente del Consejo Escolar del Centro Educativo y, en los otros casos, por el Representante Legal de la Entidad solicitante.

5. - PLAZO DE PRESENTACIÓN

La Hoja de Inscripción de la Entidad en la Campaña de Deporte Escolar 2001-2002 se presentará en el Registro General de la Diputación Foral de Álava o en la Oficina de Inscripción de Deporte Escolar hasta el día 28 de setiembre de 2001 (inclusive), salvo que por razones técnicas u organizativas el Departamento de Juventud y Deporte establezca otra fecha.

Las Hojas de Inscripción de Grupo o Equipo se presentará en el Registro General de la Diputación Foral de Álava o en la Oficina de Inscripción de Deporte Escolar, para su tramitación y dentro de las fechas marcadas en las normativas de competición elaboradas para cada una de las modalidades deportivas, salvo que por razones técnicas u organizativas el Departamento de Juventud y Deporte establezca otra fecha.

6. - ALTAS DE DEPORTISTAS

En cada normativa de competición especifica de cada modalidad deportiva se determinaran las fechas limite dentro de las cuales se podrán efectuar altas de deportistas así como las condiciones de las mismas.

NOTA INFORMATIVA

Para la tramitación de las inscripciones, y demás información que se ofrecerá a través de la página web de Deporte escolar, se facilitará un manual del usuario que ayudará a navegar por dicha página.

DERRIGORREZKO DIRUBILKETA AGENTZIA

4.894

Arabako Foru Aldundiko Derrigorrezko Dirubilketa Agenteak

JAKINARAZTEN DU: Neure kargu dagoen Derrigorrezko Dirubilketa Agentzian administrazioaren honako premiamendu espedienteok daudela:

AGENCIA EJECUTIVA

4.894

La Agente Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava,

HACE SABER: Que en esta Agencia Ejecutiva de mi cargo obran expedientes administrativos de apremio que corresponden a la descripción siguiente:

ZORDUNA DEUDOR	ESPEDIENTE EXPEDIENTE	AZALPENA CONCEPTO	SALAKETA DATA F. DENUNCIA	ALDIZKARI ZB. Nº BOLETIN	MATRICULA MATRIKULA	ZENB. OSOA IMPORTE TOTAL
BASARRATE LASFUENTES DOLORES	2001- 87/000105	INTERIOR-TRAF.BIZKAI	21/05/2000	48/0560528	VI 1395L	19.200
GARCIA GALLEGO MARIA DEL PILAR	2001- 87/000197	INTERIOR-TRAF. ARABA	12/05/2000	01/6022502	VI 4727M	24.000
GONZALEZ MAESTU JUAN JOSE	2000- 51/000035	INTERIOR-TRAF. ARABA	9/05/1999	01/0170918	VI 8805V	120.000
HORMIGONES PREMEZC. ALAVA S.A.	2001- 101/000101	DELEG TBJO ALAVA	17/05/2000	SH-0135/2000		1.308.120
ORTI DEL HOYO JUAN MANUEL	2001- 87/000006	INTERIOR-TRAF. ARABA	16/05/2000	01/6022584	M6747SH	36.000
RUBIO LOPEZ JUAN JOSE	2001- 87/000305	INTERIOR-TRAF. GIPUZ	3/02/2000	20/6013411	VI 2506U	36.000

Norbere borondatez ordaintzeko epea amaiturik, Eusko Jaurlaritzako Finantza eta Aurrekontu zuzendariak aipatutako zordunen premiamendu probidentzia eman duela, goian adierazitako kontzeptu eta zenbatekoengatik. Probidentzia zordunei bidali zaie, baina ezin izan zaie jakinarazi uko egin diotelako. Horregatik, Arabako Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen da, Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Araudi Orokorraren 133. artikuluan ezarritakoari jarraiki:

"PREMIAMENDU PROBIDENTZIA" Eusko Jaurlaritzaren 212/98 Dekretuko 61. artikuluak eta Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Araudi Orokorraren 136.2 artikuluak ematen dizkidaten ahalmenak baliatuz, zorraren zenbatekoa % 20ko errekarguan sartua deklaratzen dut. Gainera, zordunaren ondarearen aurka betearazpen bidetik jardutea agintzen dut, goiko lege-arauetan ezarritakoari jarraiki.

Argitaratu den egunaren hurrengotik hasi eta 15 laneguneko epean jaso behar dira jakinarazpenak. Jaso ezean, honako hau jakinarazpentzat hartuko da ondorio guztietarako, Arabako Lurralde

Que sobre los mismos, y una vez finalizado el plazo para el pago voluntario del débito por los conceptos e importes indicados, el señor Director de Finanzas del Gobierno Vasco ha dictado Providencia de Apremio de los citados deudores, la cual ha sido remitida a los mismos no habiendo sido posible su notificación por haber resultado rehusada, por lo que se procede a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, de conformidad con lo establecido en el artículo 133 del Reglamento General de Recaudación del Territorio Histórico de Álava:

"PROVIDENCIA DE APREMIO" En uso de las facultades que me confiere el artículo 61 del Decreto 212/98 del Gobierno Vasco y el artículo 136.2 del Reglamento General de Recaudación del Territorio Histórico de Álava, declaro incurso el importe de la deuda en el recargo del 20 por 100 y dispongo que se proceda ejecutivamente contra el patrimonio del deudor, con arreglo a los preceptos de los mismos.

Las notificaciones deberán ser retiradas antes de los quince días hábiles contados a partir del siguiente a esta publicación. En su defecto, la presente servirá de notificación a todos los efectos, de